



# *SYMPOSIUM*

**PISA 2015**

**BIZKAIA ARETOA-EHU/UPV**  
ABANDOIBARRA ETORBIDEA. BILBAO  
2015 martxoak 18



## PISA PROIEKTUA

### Zer da PISA proiektua?

PISA proiektua (Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa) XXI. mendearekin batera jarri zen abian, eta nazioarteko erreferentzia bihurtu da hainbat herrialdetako 15 urteko ikasleen errendimenduaren ebaluazioan oinarriturik hezkuntza-sistemen egoera ezagutzeko. Herrialde horietako batzuk Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) kideak dira eta beste batzuk, ez.



**HELGA**ko herrialdeak: Alemania, Australia, Austria, Belgika, Kanada, Txile, Hego Korea, Danimarka, Eslovenia, Espainia, Estatu Batuak, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Islandia, Israel, Italia, Luxenburgo, Mexico, Norvegia, Zeelanda Berria, Herbehereak, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Erresuma Batua, Suitza, Suedia eta Turkia.

Proiektua ikasleek hezkuntza-sistema guztietan oinarritzotzat hartzen diren kompetentzietan duten errendimendua nazioarte mailan konparatzeko neurri komun bat finkatu beharri erantzuteko asmoz sortu zen. Horretarako lankidetzeta-marko bat eratzea proposatu zen, helduaroko bizimodura igarotzeko behar diren ezagupenei eta trebetasunei dagozkien hezkuntza-helburuak finkatzeko eta betetzeko.

Geroari begira egiten den ikerlan konparatiboa da eta 2000. urtez geroztik hiru urtez behin egin da. Hasierako ebaluazioan Matematikarako kompetentzia, Zientziarako kompetentzia eta Irakurtzeko kompetentzia neurtu ziren, eta 2003ko ebaluazioan Problemen ebazpena izeneko kompetentzia ere erantsi zen. Aldian behingo ebaluazioa izateak ikasleen prestakuntzaren luzetarako ikuspegia izateko aukera ematen du. Ebaluazio bakoitzean garrantzi berezia izan duten kompetentziak letra larri eta beltzez adierazi dira hurrengo taulan.

	<b>PISA 2000</b>	<b>PISA 2003</b>	<b>PISA 2006</b>
Konpetentziak	<b>IRAKURKETA</b> Matematika Zientzia	Irakurketa <b>MATEMATIKA</b> <b>PROBLEMEN EBAZPENA</b> Zientzia	Irakurketa Matematika <b>ZIENTZIA</b>

	<b>PISA 2009</b>	<b>PISA 2012<sup>1</sup></b>	<b>PISA 2015</b>
Konpetentziak	<b>IRAKURKETA</b> Matematika Zientzia	Irakurketa <b>MATEMATIKA</b> <b>PROBLEMEN EBAZPENA</b> Zientzia	Irakurketa Matematika <b>ZIENTZIA<sup>2</sup></b> Problemen ebazpena lankidetzan Finantzetarako konpetentzia

15 urteko ikasleek egiten dute ebaluazioa, edozein irakasmaitan egonda ere, eta batez beste zortzi urtez eskolaturik egon dira hezkuntza-sisteman.

### Zer neurtzen du PISA proiektuak?

Arestian aipatutako arloak ebaluatzen baditu ere, proiektua oinarrian ez da curriculum-ebaluazio bat, arlo bakoitzeko eduki zehatzak zeharka ebaluatzen baititu. Ezaugarri berri honi esker, ikasitakoak eguneroko bizitzako egoera errealei aurre egiteko duen erabilgarritasuna ebaluatu daiteke, eta, baita ere, ikasleek helduaroako bizimoduaren erronkei aurre egiteko adin horretara arte jaso duten prestakuntza.

Emaitzetan herrialde bakoitzeko eta ELGAko ikasleen batez besteko puntuazioak zehazten dira, eta horrekin batera errendimendu-maila bakoitzean (gutxieneko konpetentziak baino maila apalagotik bikaintasun mailaraino) kokatu diren ikasleen ehunekoa, maila bakoitzari lotutako lanak egiterakoan erakutsitako trebetasunaren arabera.

Informazio horretatik aparte, emaitzei lotutako hainbat faktoreri buruzko informazioa jasotzen da testuinguruko galdera-sorta baten bidez, hala nola, ikasleen eta familien aspektuak, sexua, irakasmaita, motibazioa, norberari buruzko kontzeptua, ikasteko estrategiak, gerorako itxaropenak, maila sozio-ekonomikoa eta kulturala eta abar. Eta ikastetxeari dagozkion beste faktore batzuk ere, adibidez, ikastetxearen antolamendua, ikaste-irakaste prozesuak eta abar.

### Nork hartzen du parte PISA proiektuan?

Proiektuan parte hartu duten herrialdeen kopurua handitzen joan da ebaluazio batetik bestera; 2015ean hirurogeita hamabi herrialde izango dira, batzuk ELGAko kideak, eta beste batzuk ELGAko kideak ez direnak. Horrez gain, zenbait eskualdek eta erkidegok ikasleen lagin handiarekin hartuko dute parte, euren emaitzak nazioarteko emaitzekin konparatu ahal izateko.

<sup>1</sup> Formatu digitaleko item liberatuak esteka hauetan aurki daitezke:

ISEI-IVEI. PISA 2012 Item digitalak liberatuak: problemen ebazpena, matematikarako konpetentzia eta irakurtzeko konpetentzia. [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/ITEM\\_DIGITALAK.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/ITEM_DIGITALAK.pdf)  
OCDE. <http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=toMaths>

<sup>2</sup> Konpetentzia horretako itemak interaktiboak izango dira, eta horien lagin bat helbide honetan aurki daiteke: . [http://www.isei-ivei.net/docs/PISA/Zientzietako\\_item\\_liberatuak.pdf](http://www.isei-ivei.net/docs/PISA/Zientzietako_item_liberatuak.pdf)

[http://www.isei-ivei.net/docs/PISA/Zientzietako\\_item\\_liberatuak\\_ikasleentzako\\_materia.pdf](http://www.isei-ivei.net/docs/PISA/Zientzietako_item_liberatuak_ikasleentzako_materia.pdf)

Euskadik 2003. urtetik ikasleen lagin handitu eta adierazgarriarekin hartu du parte PISA proiektuan, eta beraz, lau ebaluaziotako datuei esker, Euskadiko hezkuntza-sistemaren hamar urtetako joerak eta ezaugarriak azter daitezke. PISA 2015 Euskadik ikasleen lagin aski handiarekin parte hartzen duen bosgarren ebaluazioa izango da.

PISA 2015 ebaluazioan Euskadiko ikasleen lagina gehienez 5.000 ikaslekoa izango da, eta lagina osatzeko irakastereduen presentzia eta hezkuntza-sarea hartuko dira kontuan. Irakasteredu bakoitza ikastetxe oso bat balitz bezala hartuko da, eta, beraz, gerta liteke ikastetxe bakar batean B ereduko talde bat eta D ereduko beste talde bat aukeratuak izatea.


### Nolakoak izan dira Euskadiko emaitzak PISA 2003 ebaluaziotik?

Grafikoetan Euskadik 2003. urtetik lagin handituarekin parte hartu dueneko ebaluaziotako kompetentzietako puntuazioak azaltzen dira. Ikus daitekeen bezala, Euskadiko puntuazioak Zientziarako kompetentzian bakarrik izan dira, bi aldiz (PISA 2003 eta PISA 2009), ELGAko batez bestekoa baino nabarmenki apalagoak.


Matematikarako kompetentzian azken bi ebaluazioetan puntuazioak batez bestekoa baino nabarmenki altuagoak izan dira.

Irakurtzeko kompetentzian puntuazioak ELGAko batez bestekoaren parekoak izan dira lau ebaluazioetan.


Matematikarako kompetentziako emaitzen bilakaera.  
PISA 2003 - 2012. EUSKADI - ELGA.



Irakurtzeko kompetentziako emaitzen bilakaera.  
PISA 2003 - 2012. Euskadi - OCDE.



Zientziarako kompetentziako emaitzen bilakaera.  
PISA 2003 - 2012. EUSKADI - ELGA.



## Nola gauzatuko da PISA 2015 ebaluazioa?

PISA 2015 ebaluazioan zenbait aspektu berri sartu dira, batzuk oso garrantzitsuak:

- 57 herrialdetan probak ordenagailuaren bidez egingo dira (2012an Euskadiko ikasleen lagin batek horrelako proba bat egin zuen), horrela egitea ezinezkoa den herrialdeetan izan ezik.
- Oraingo ebaluazioan, oinarriko kompetentziez gain (Irakurketa, Matematika eta bereziki Zientzia), Problemen ebazpena lankidetzan eta Finantzatarako kompetentzia ere ebaluatuko dira.
- Problemen ebazpena lankidetzan izeneko kompetentzian lankidetzan lan egitea da aspektu berria; hartara, bi pertsona edo gehiago euren ezagupenak, trebetasunak eta ahalegina txat baten bidez, ez interakzio errearen bidez, partekatzen dituzte planteatutako problema ebazteko.
- Finantzatarako kompetentziaren xedea ikasleek finantza-kontzeptuak eta arriskuak zenbateraino ezagutzen dituzten neurtzea da, eta, baita ere, zenbateraino erabiltzen dituzten norberaren eta gizartearen ongizatea hobetzeari begira eta bizitza ekonomikoan parte hartzeari begira hartu beharreko erabakiak hartzerakoan.

Ebaluazioa apirilaren 20tik maiatzaren 29ra bitartean gauzatuko da. Ikastetxeak eta ebaluazioa gauzatzeko kontratatutako enpresak data eta probaren nondik norakoak adostu beharko dituzte.

Euskarri digitaleko proba ikasle guztiek egin ahal izateko behar diren beste ordenagailu jarriko ditu enpresak.

Proba guztiak egun bakar batean egingo dira, hurrenkera honetan:

- Ezagutza-probak: Zientziarako kompetentzia, Irakurtzeko kompetentzia, Matematikarako kompetentzia eta Problemen ebazpena lankidetzan.
- Testuinguruko galdera-sorta
- Finantzatarako kompetentziako proba (lagin bat bakarrik).

Ezagutza-probak ordubeteko bi saiotan egingo dira, bien artean 5 minutuko atsedenaldea izango delarik. Probak egin ondoren, 15 minutuko atsedenaldea izango da; gero ikasleek 45 minutu izango dituzte galdera-sortari erantzuteko.

Erantzunak askotariko motetakoak izango dira: aukera anitzekoak, idatzizko erantzun laburrak zein luzeak. Zientziarako kompetentziako proban simulazio animatu batzuk ere izango dira.

Euskadiko 15 urteko ikasleen lagin adierazgarrian, gehienez 42 ikasle izango dira ikastetxeko. Finantzatarako kompetentziaren ebaluaziorako lagina osatzen duten ikasleek (12 ikasle ikastetxeko) 65 minutu gehiago izango dituzte proba gehigarri hori egiteko.

Kontratatutako enpresak galdera-sortetara sartzeko kodeak ikastetxeei banatuko dizkie, zuzendaritza taldeek interneten bidez bete ahal izan ditzaten. Gainera, 14 ikastetxetan galdera-sorta gehigarri bat izango da, orokorra, irakasleek on-line bete beharrekoa, eta berariazko galdera-sorta bat zientziako irakasleek bete beharrekoa. Aipatutako 14 ikastetxeetako familientzako galdera-sorta bat izango da, paper-formatukoa, ikasleei banatuko zaiena.



Informazio gehiagorako:

PISA ELGAn (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea)

<http://www.oecd.org/pisa/pisaproducts/pisainfocus.htm>

<http://www.oecd.org/pisa/>

PISA INEEEn (Instituto Nacional de Evaluación Educativa):

[http://www.mecd.gov.es/inee/Ultimos\\_informes/PISA-2012.html](http://www.mecd.gov.es/inee/Ultimos_informes/PISA-2012.html)

PISA ISEI-IVEIn:

<http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

[http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2012/ITEMS\\_DIGITALES.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2012/ITEMS_DIGITALES.pdf)

[http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2015\\_it\\_liberados/items\\_liberados\\_ciencias.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2015_it_liberados/items_liberados_ciencias.pdf)

[http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2015\\_it\\_liberados/items\\_liberados\\_ciencias\\_material\\_alumnado.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/PISA2015_it_liberados/items_liberados_ciencias_material_alumnado.pdf)

<http://www.isei-ivei.net/eusk/indexeusk.htm>

[http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/ITEM\\_DIGITALAK.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/ITEM_DIGITALAK.pdf)

[http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2015item\\_liberatuak/Zientzietako\\_item\\_liberatuak.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2015item_liberatuak/Zientzietako_item_liberatuak.pdf)

[http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2015item\\_liberatuak/Zientzietako\\_item\\_liberatuak\\_ikasleentzako\\_materia.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2015item_liberatuak/Zientzietako_item_liberatuak_ikasleentzako_materia.pdf)

[http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2015item\\_liberatuak/Zientzietako\\_item\\_liberatuak\\_ikasleentzako\\_materia.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2015item_liberatuak/Zientzietako_item_liberatuak_ikasleentzako_materia.pdf)